



1. IDEIA ETA BALIO PROPOSAMENA

“**Drogalontzia**” ideia Brainstorming baten ondoren datorren ideia bat da. Klase batean, 15-30 minutuz ideiak botatzen aritu ginen, aukeratutakoa egokia zela erabaki egin genuen arte. Proiektuaren izena zera da, Droga + edalontzia hitzen konbinazio bat, eta logoa gure edalontziari erreferentzia egiten dio.

Edalontziaren funtzionamendua beste pertsona baten esku utzi dugu. Berak azaldu digun bezala, droga edo substantzia toxikoak detektatzen dituen “tirak” jarriko ditugu edalontzian, eta horiek, aipatu dugun substantzia bat detektatzean, erreakzionatu egingo dute kolore jakin bat hartuz.

Baliogarria dela uste dugu gizartearen ongizatea eta segurtasuna ziurtatzeko. Izan ere, askotan ikusten dugu gure inguruan edo berrietan, norbaiti drogak sartu dizkiotela baimenik gabe edarrietan. Substantzia hauek, edari batekin nahastuta, kontsumitzen dutenei epe laburrean kontzientzia eta oroimena galarazten dieten substantziak dira, haien osotasuna arriskuan jartzen dutenak eta, kasu batzuetan, drogen eraginpean dauden pertsonen egoera aprobeztatzen da haiei abusuak egiteko.

Drogalontziak egoera hauek saihestea du helburu nagusi bezala eta batez ere, gaueko giro ezberdinetan jendearen artean beldur sentazio hori ekidin nahi dugu, jaietaz eta aisialdiaz guztiz disfrutatu dezaten.





Balio proposamenaren arabera, gure "Drogalontzia"-k balore kualitatiboa dauka. Izan ere, bezeroen esperientzia hobetzen du diskoteketan eta tabernetan, esate baterako, gauak seguruagoak izatea ahalbidetuz.

Gure produktuan balorea sortzen duten elementuak hauek dira: nobedadea, arriskua murriztea, diseinua, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna. **Nobedadea** sortzen duela argi dago, merkatuan ez dagoelako antzeko ezer, behintzat gure enpresak jardungo duen merkatuan.

"Drogalontzia"-k **arriskuak murrizten** ditu; alde batetik, 6 hilabeteko garantia bat eskaintzen die produktua erosten duten kontsumitzaileei, denbora horretan produktuari edozer gertatzekotan. Eta beste alde batetik, gizarten sortu daitezkeen egoera arriskutsu ezberdinak ekiditen ditu, osasun arloarekin eta pertsonen segurtasunarekin erlazionatutakoak batez ere.

Gainera, **diseinua** beste edalontziekin alderatuta zertxobait desberdina izango da. Marka bat jarriko diegu edalontziei, gure teknologia dutela jakiteko. Horrez gain, hainbat motatako edalontziak egingo ditugu: handiak, txikiagoak, kopak, tapadun edalontziak... Aipatu beharra dago beste bereizketa bat egingo dugula, banakoei eta enpresei saltzen dizkiegun edalontziak bereiztuz, eta honen arabera edalontzi bakarrak edo pack bereziak egingo ditugu. Azkenik, gure produktua **eskuragarria eta erabilerraza** da, denda fisikoetan erostez gain, internetik erosi ahal delako eta beste edalontzi arrunt bat izango balitz bezala erabiltzen delako.

